



EBAZPENA, 2020ko abenduaren 3koa, Langileriaren Kudeaketa zuzendariarena. Erabaki honen bidez aditzera ematen da noiz egingo den tokiz aldatzeko lehiaketan parte hartu duten funtzionarioek alegatutako merezimenduak baloratuko dituzten Balorazio Batzordeetako kideen zozketa. Ondoko kidegoetako funtzionarioak dira: Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza-Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoko, Arte Plastiko eta Diseinuko katedradun eta irakasleen kidegoetako funtzionarioak bai eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko funtzionarioak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren menpe daudenak.

Hezkuntza sailburuak 2020ko urriaren 22an emandako Aginduaren bidez egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko unibertsitatekoak ez diren irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia (EHAA, 2020ko azaroaren 4a). Agindu horren hogeita hirugarren oinarriarekin bat etorritz ondokoa.

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- 2020ko urriaren 22ko Aginduak araututako lekualdatze-lehiaketan parte hartzen dutenek (Maisu-maistren kidegokoak izan ezik) alegatutako merezimenduak -I. Eranskineko puntuazio-baremoko 5.1, 5.2, 6.1, 6.2 eta 6.3 atalei dagokienez- ebaluatzeko Batzordeetako partaideen zozketa 2020ko abenduaren 10ean egingo dela, eguerdiko 10:00etan, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzan (Donostia-San Sebastian, 1, Lakua II. eraikina, 3. solairuan Vitoria-Gasteiz).

Bigarrena.- Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-tauletan eta Hezkuntza Sailaren web orrian <http://www.irakasle.eus> edo <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila>, emango da argitara aipatutako zozketaren emaitza aditzera ematen duen Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren ebazpena.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 3a.

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

BLNCA MARIA GUERRERO OCEJO